

## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

### **2024ko EKAINAREN 27an, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2024ko ekainaren 27an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, arratsaldeko 16:00 orduetan, Maite Arana Perez Alkatearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

**ZINEGOTZIAK:** Maria Pilar Cortajarena Sorarrain  
Jose Antonio Rodriguez Rodriguez  
Vicente Garcia Momblona  
Jose Agustin Arrieta Eguiguren


**BERE EZIN ETORRIA AZALTZEN DUTE:** Ander Iturri Torrea eta Maria Isabel Vaquero Montero.

Bertan dago, egintzaz fede emateko Ane Gomez Urteaga Idazkari-kontuhartzailea.

...//...

Alkate-lehendakari andreak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten diren Udalbatzarretako aktak onestu, hala badagokio/ Aprobación, si procede de las siguientes actas Plenarias:**
  - **2024ko maiatzaren 31an egindako ohiko bilkura/ Sesión ordinaria de fecha 31 de mayo de 2024.**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea/ Dación de cuenta de los decretos de Alcaldía.**
- 3. Fakturak eta ordainketak/ Pagos y facturas.**
- 4. Larraulgo ekomuseoa berritzeko proiektua aurrera eramateko T.G.- eta Larraulgo udalaren arteko lankidetzaren hitzarmenaren onespena./ Aprobación del Convenio de Colaboración entre T.G. y el Ayuntamiento de Larraul para la ejecución del proyecto de reforma del ecomuseo de Larraul.**
- 5. 2024 urtean “tolosaldea sahararekin elkartean, 365 egun” proiekturako, tolosaldea sahararekin elkartean eginiko diru-laguntza eskaeraren onespena./Aprobación de la solicitud correspondiente al ejercicio 2024 de subvención para el proyecto “tolosaldea sahararekin elkartea, 365 días.**
- 6. Mobil home bat Larraulgo Zabaleta parkean kokatzeko erosketari buruzko bigarren ordainketaren onespena./ Aprobación del segundo pago de la compra para ubicar un móvil home en el parque Zabaleta de Larraul**
- 7. 2024 urteko udal langileen opor egutegiaren onespena./ Aprobación de calendarios de vacaciones del personal municipal para el año 2024**
- 8. Beste batzuk/Otros.**



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

### 9. Erregu, galderak eta mozioak/Mociones, ruegos y preguntas.

..//...

#### **LEHENENGO PUNTUA**

#### **ONDOREN ADIERAZTEN DIREN UDALBATZARRETAKO AKTAK ONESTU, HALA BADAGOKIO**

- 2024 urteko maiatzaren 31an egindako Udalbatzaren ohiko bilkurako akta. Irakurri ondoren udalbatzak, aho batez, onesten du.

#### **BIGARRENGO PUNTUA**

#### **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Ondoren, Udaleko Idazkari-Kontuhartzaileak adierazten du 2024 urteko 30/2024tik 35/2024ra Lehendakari Ebazpenak eman direla. Bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik.

#### **HIRUGARRENGO PUNTUA**

#### **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Alkate-Lehendakari andreak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

MAQUELSA	7,53
KIROLZER	51,20
TELEFONICA	10,41
GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOA	5.858,86
EKILUZ	61,96
TOLOMENDI	1.045,29
UDANE ALCALDE	75,00
EKILUZ	143,17
EKILUZ	220,29
EKILUZ	70,68
TELEFONICA	83,49
EKILUZ	199,60
EKILUZ	44,76
EKILUZ	30,08
EKILUZ	155,28
EKILUZ	68,57
IPARFIBRA	264,96
NORTEGAS	209,77
NORTEGAS	41,65
MAITE ARANA	46,87
ALKIZAKO UDALA	594,11



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

TOLOSALDEA GARATZEN	1.195,52
LASURTEGUI ATXEKI	121,00
EBA ERKIZIA	1.569,81
ALKAIN	103,33
MAITE ARANA	44,70
OSCAR GALINDO	133,10
SECURITAS DIRECT	55,04
SECURITAS DIRECT	54,39
MAQUELSA	45,56
UDANE ALCALDE	187,50
LARRAITZ OLAZABAL	104,67
KIROLZER	134,85
KALEXKA	1.000,00
GIPUZKOAKO BERTSOZALE ELKARTEA	216,89
ZU ETA BIOK	1.590,62
KOMUNIKAZIO BIZIAGOA	192,00
GUREAK MARKETING	2,59
ASOCIACION LARRAULTO TEK	110,11

Udalbatza honek, **ahoko batez** hurrengoa,

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **16.145,21** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.


### **LAUGARREN PUNTUA**

### **LARRAULGO EKOMUSEOA BERRITZEKO PROIEKTUA AURRERA ERAMATEKO TOLOSALDEA GARATZEN ETA LARRAULGO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENAREN ONESPENA**

Ikusita Tolsaldea Garatzen eta Larraulgo udalaren arteko lankidetzahitzarmenaren zirriborroa, Larraulgo udalerrian Tolosaldeko turismo jasangarriaren planeko jarduerak gauzatzeko. Plan hori suspertze transformazio eta erresilientzia planaren esparrukoa da, eta europar batasuneko Next Generation Funtsak dira finantzatzaileak.

Ikusita, hitzarmena eta 1. dokumentuak ondorengo diotela:

**“TOLOSALDEA GARATZEN ETA LARRAULGO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA, LARRAULGO UDALERRIAN TOLOSALDEKO TURISMO JASANGARRIAREN PLANeko JARDUERAK GAUZATZEKO. PLAN HORI SUSPERTZE, TRANSFORMAZIO ETA ERRESILIENTZIA PLANAREN ESPARRUKOA DA, ETA EUROPAR BATA SUNEKO NEXT GENERATION FUNTSAK DIRA FINANTZATZAILAK.**



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Tolosan, azken sinadura elektronikoaren egunean.

### **BILDU DIRA**

Alde batetik, Anjel Martínez de Rituerto jauna, adinez nagusia (NAN: 72.438.134.W), lehendakaria Tolosaldea Garatzen SA erakundearen (helbidea: Lehiberri Zentroa, Apattaerreka industrialdea, Tolosa), Gipuzkoako Merkataritza Erregistroan inskribatua, eta IFK A20500229 duena. Kargu horretarako izendatua Administrazio Kontseiluak 2023ko urriaren 02an egindako bileran. Gaur egun, erakunde horren ordezkari da, eta hitzarmen hau sinatzeko ahalmena du, Administrazio Kontseiluaren 2024ko uztailaren 15eko erabakiaren arabera (I. ERANSKINA).


Bestetik, Maria Teresa Arana Perez andrea, Larraulgo Udaleko alkate-udalburua, erakunde horren ordezkari gisa hitzarmen hau sinatzeko ahalmena duena, Udaleko Osoko Bilkurak 2024ko ekainaren 27an hartutako erabakiaren arabera, Ane Gomez Urteaga andrea, Larraulgo Udaleko idazkari-kontuhartzailea, bertaratuta eta egintzaren fede emanda (II. ERANSKINA).

Alderdiek elkarri aitortzen diote, bakoitzak esku hartzen duen moduan, hitzarmen hau sinatzeko behar den legezko gaitasuna dutela, eta, horretarako, honako hau

#### **1.**

### **2. ADIERAZTEN DUTE**

- I.** Tolosaldea Garatzen eskualde-garapenerako agentziaren estatutu-helburua Tolosaldea eskualdea sustatzeko jarduerak egitea da. Era berean, sozietateak, bere estatutuen arabera, proiektuak gara ditzake eskualdean.
- II.** Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen (aurrerantzean, SPAJL) 49.b artikuluan ezarritako betekizunaren ondorioetarako soilik, agertutako alderdiak bat datoz esatean, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.1 artikulua arabera, orain sinatzen duen udalak eskumen propioak dituela honako arlo hauetan: kultura eta kultura-jarduerak antolatzea eta sustatzea eta erabilera publikoko kultura-ekipamenduak kudeatzea (20. apartatua), tokiko turismoa kudeatzea eta sustatzea (22. apartatua), tokiko ekonomia- eta gizarte-garapena (25. apartatua) eta udal-ondarea kudeatzea eta kontserbatzea eta mantentzea (28. apartatua).
- III.** 2022ko martxoaren 29an, Turismoaren Konferentzia Sektorialak dokumentu bat onartu zuen, Helmugako Jasangarritasun Turistikoaren Ezohiko Programaren (HJTP) 2022rako dirulaguntzen ezohiko deialdia arautzen duena. Tokiko erakundeei eta toki-garapeneko agentziei zuzenduta dago programa hori. Deialdia Europako funtsekin finantzatzen da oso-osorik. Funts horiek




## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

autonomia-erkidegoei transferitzen zaizkie, eta haiek arduratzen dira funtsak HJTPak kudeatzen dituzten erakundeen artean banatzeaz.

- IV.** Tolosaldea Garatzenek, udalerrien laguntzarekin, Helmugako Jasangarritasun Turistikoaren Plan bat egin zuen.
- V.** Tolosaldea Garatzen erakundea dela 2022ko HJTP honen sustatzaile eta planeko jarduketaren onuradun.
- VI.** Tolosaldea Garatzenek parte hartu zuen 2022ko Helmugako Jasangarritasun Turistikoaren Lurralde Planen ezohiko deialdian, eta «Tolosaldeko Turismo Jasangarriaren Plana» izeneko proiektu bat aurkeztu zuen.
- VII.** Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak eta SETUREk baloratu zuten proiektu hori, eta 100etik 70 baino nota altuagoa lortu zuten balorazio-irizpideetan oinarrituta, eta, horregatik, onartu egin zuten eta Euskadiko Jasangarritasun Turistikoaren Lurralde Planaren parte bihurtu zen.
- VIII.** Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak, 2022ko abenduaren 14ko Konferentzia Sektorialaren erabakia betetz, 1.980.400 euroko ekarpena egin dio Tolosaldea Garatzen agentziari, Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Mekanismoa izeneko aurrekontu-programaren kontura (1228 programa, 12281 azpiprograma), Tolosaldeko Turismo Jasangarriaren Plana finantzatzeko. Hauek dira plan hori osatzen duten jarduketak:

7. esku-hartzea: Tolosaldea Garatzen. Tolosaldeko HJTP						
Jarduketa-ardatzak	Jarduketak		1. urtekoa	2. urtekoa	3. urtekoa	GUZTIRA
1. ardatza	1	Fagus-Alkiza eta Pello Zabala Gunea interpretazio-zentroak hobetzea	0 €	49.375 €	80.000 €	129.375 €
	2	Higaduraren aurka babesteko neurriak aztertzea eta ezartzea	0 €	0 €	150.000 €	150.000 €
	3	Biodibertsitatea hobetzeko eta zabaltzeko ibilbideen ondoan hezeguneak sortzea	0 €	0 €	59.375 €	59.375 €
		<b>1. ARDATZA, guztira</b>	<b>0 €</b>	<b>49.375 €</b>	<b>289.375 €</b>	<b>338.750 €</b>
2. ardatza	1	Tolosaldea oinez eta bizikletaz	51.375 €	151.000 €	20.000 €	222.375 €
	2	Turismo-mugikortasuna aztertzea eta irtenbideak ezartzea	50.000 €	290.000 €	60.000 €	400.000 €
		<b>2. ARDATZA, guztira</b>	<b>101.375 €</b>	<b>441.000 €</b>	<b>80.000 €</b>	<b>622.375 €</b>




## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

3.	1	Tolosaldeko turismo-digitalizazio eta -inteligentzia plana	99.375 €	105.200 €	42.200 €	246.775 €
	ardatza	<b>3. ARDATZA, guztira</b>	<b>99.375 €</b>	<b>105.200 €</b>	<b>42.200 €</b>	<b>246.775 €</b>
4.	1	Eskaintza kultural turistikoa sortzea eta hobetzea	0 €	49.375 €	180.000 €	229.375 €
	2	Tolosaldea irisgarria	9.375 €	43.000 €	50.000 €	102.375 €
	3	Turismo aktiboaren eskaintza hobetzea	31.375 €	50.000 €	0 €	81.375 €
	4	Turistei bertako produktuen balioa nabarmentzea	79.375 €	60.000 €	40.000 €	179.375 €
	5	Helmugako Jasangarritasun Turistikoaren Planaren kudeatzailtza	60.000 €	60.000 €	60.000 €	180.000 €
	ardatza	<b>4. ARDATZA, guztira</b>	<b>180.125 €</b>	<b>262.375 €</b>	<b>330.000 €</b>	<b>772.500 €</b>
<b>Guzti ra</b>			<b>380.875 €</b>	<b>857.950, €</b>	<b>741.575, €</b>	<b>1.980.400,00 €</b>

- IX.** Horretarako, Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak eta Tolosaldea Garatzen agentziak hitzarmen bat sinatu zuten 2023ko uztailaren 21ean, Helmugako Jasangarritasun Turistikoaren Plana gauzatzeko —Euskadiko Jasangarritasun Turistikoaren Lurralde Planari dagokiona, Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren esparruan, zeina Europar Batasuneko Next Generation-EU funtsek finantzatzen baitute—. Udalari hitzarmen horren kopia bat eman zaio, eta ezagutzen ditu, beraz, hitzarmenaren edukia eta hitzarmenaren ondoriozko betebeharrak.
- X.** Lankidetzeta-hitzarmen honek Tolosaldea Garatzen eta Udalaren arteko lankidetzeta zehazteko beharrari erantzuten dio, Larraulen, aipatutako *ut supra* jarduketak gauzatzeko.
- XI.** Akordio hau lankidetzeta-hitzarmena da, SPAJ Legearen 47. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitakoaren arabera.
- XII.** Era berean, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (SPKL) 31.1.b) artikulua aukera ematen die sektore publikoko erakundeei elkarrekin lankidetzan aritzeko, eta lankidetzeta horren emaitza ezin da kontratuzkotzat jo, sektore publikoko erakundeen arteko lankidetzeta horizontaleko sistemen bidez, dagozkion hitzarmenak egin ondoren, SPKLren 6. artikulua 1. apartatuan ezartzen diren baldintzetan eta mugekin. Artikulu horretan xedatutakoari dagokionez, SPKLren 6.1 artikulua lege horren eremutik kanpo uzten ditu hitzarmenak, haien edukia lege honetan edo administrazio-arau berezietan



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

araututako kontratuen barruan ez badago, eta hauen artean sinatutakoak badira: Estatuko Administrazio Orokorra, Gizarte Segurantzako kudeaketa-erakundeak eta zerbitzu erkideak, unibertsitate publikoak, autonomia-erkidegoak eta Ceuta eta Melilla hiri autonomoak, toki-erakundeak, haien mendeko nortasun juridiko publikoa duten erakundeak eta nortasun juridiko pribatua duten erakundeak. Gainera, kanpoan uzteko, honako baldintza hauek bete beharko dira:

- i. Esku hartzen duten erakundeek ez dute merkatu-bokaziorik izan behar.
- ii. Hitzarmenak erakunde parte-hartzaileen arteko lankidetzaz ezartzea edo garatzea, dagozkien zerbitzu publikoak elkarrekin dituzten helburuak lortzeko moduan ematen direla bermatzeko.
- iii. Lankidetzaren garapena interes publikoarekin lotutako gaiek soilik gidatzea.

Hitzarmen honen xedea ez da sektore publikoko kontratuen berezko prestazioak ematea, eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen aplikazio-eremutik kanpo geratzeko hiru baldintzak betetzen ditu, 6. artikuluko 1. apartatuaren arabera.

**XIII.** Bertaratutako pertsona juridikoak erabat ados daude HITZARMEN hau egiteari dagokionez, eta hona hemen:

### ▣ KLAUSULAK


#### **LEHENENGOA.- HITZARMENAREN XEDEA**

1.- Hitzarmen honen xedea da Tolosaldea Garatzen eta Udalaren arteko lankidetzarako araubide orokorra garatzea, goiko VIII. atalean jasotzen diren jarduketak gauzatzeko.

2.- Hitzarmen hau dokumentu honetan aurreikusitako Jarraipen Batzordearen akordioan arabera garatu ahal izango da, eta lankidetzaz hitzarmena garatzeko emandako beste edozein dokumentu osagarriaren arabera ulertuko da.

3.- Bi alderdi sinatzaileek berariaz adierazten dute hitzarmen honen xedea ez dela obrak egitea edo Udalari zerbitzuak ematea, berak ordaindu beharreko kontraprestazio baten truke; aitzitik, bi erakundeak izango dira adostutako proiektuak gauzatzeko sustatzaile. Hala, Udalak, alde batetik, higiezinak eta oinarrizko proiektuak jarriko ditu, edo horiek emateko behar diren zerbitzuak eta elementuak arautuko ditu, eta, bestetik, Tolosaldea Garatzenek Helmugako Jasangarritasun Turistikoaren Ezohiko Programaren babesean lortutako finantzaketa gauzatzeko obrak eta zerbitzuak kontratatuko ditu.





## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

### **1. IRAUPENA**

### **BIGARRENA.- INDARRALDIA ETA**

1.- Hitzarmen hau indarrean sartzeko, bi etete-baldintza metagarri bete behar dira:

- a) UDALEAN dagokion organo eskudunak hitzarmena berrestea.
- b) Tolosaldea Garatzenen eta Eusko Jaurlaritzaren artean hitzarmena sinatzea.

2.- Hitzarmenek iraupen jakin bat izan behar dute, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 49 h) artikulua arabera, eta ez da lau urtetik gorakoa izango. Aurreikusitako epea amaitu aurretik, edozein unetan, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez adostu ahal izango dute hura luzatzea, gehienez beste lau urtez, edo hura amaitzea.


Beraz, hitzarmen honen iraupena bat etorriko da Tolosaldea Garatzen erakundearen eta Eusko Jaurlaritzaren artean sinatutako lankidetzahitzarmenaren iraupenarekin –izan litezkeen aldaketekin– eta 4 urte bete arte luzatu ahal izango da.

### **HIRUGARRENA.- UDALAREN BETEBEHAR NAGUSIAK**

1.- Udalak hitzarmen honen bidez garatzen den lankidetzahitzarmenean hartutako konpromisoak bete beharko ditu, baita honako hauek ere:

- a) Proiektatutako obren kostuetan izan litezkeen aldaketak hala badagokio, onartuko dira, aurrez Alkatetza Dekretuaren bidez.
- b) Udalak hartuko du bere gain proiektuaren kostu osoaren eta Tolosaldea Garatzenek jasotako dirulaguntzaren arteko aldea.
- c) Hitzarmen honetan aurreikusi ez den guztian, Tolosaldea Garatzenek eta Eusko Jaurlaritzak Euskadiko Jasangarritasun Turistikoaren Lurralde Planari dagokion Helmugako Jasangarritasun Turistikoaren Plana gauzatzeko sinatutako hitzarmenean jasotako aurreikuspenak aplikatzea. Plan hori Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren barruan dago, eta Europar Batasuneko Next Generation-EU funtsek finantzatzen dute.
- d) Dagokion jarduketaren dokumentu osagarri bakoitzean deskribatuko diren jabari publikoko ondasunak Tolosaldea Garatzenen esku jartzea, obrak, zerbitzuak edo hornidurak egiteko, Udaleko Alkatetzaren Dekretu bidez (III. ERANSKINA).





## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

- e) Zehazki, Udalak konpromisoa hartzen du Tolosaldeko HJTPn ezarritako obra, zerbitzu edo hornidurak helmuga turistikoa gutxienez 10 urtez mantentzeko, proiektua amaitzen denetik hasita.
- f) Larraulgo Udalak dokumentu osagarrian/etan zehaztutako proiektuaren kostuaren % 10 ordainduko du, Next Generation UE funtsek kofinantzatu ezin dituzten gastu gisa; hor sartzen dira, kudeaketa-gastuak eta pertsonal-gastuak.
- g) Dokumentu osagarrian/etan zehaztutako proiektua amaitu ondoren, eta aurretik Tolosaldea Garatzen SAk jardueren justifikazio-memoria eta horien gastuak aurkeztu ondoren, Larraulgo Udalak dagokion zenbateko ordainduko du.

### **LAUGARRENA.- TOLOSALDEA GARATZEN DUTENEN BETEBEHAR NAGUSIAK**

Tolosaldea Garatzen elkarteak lankidetzeta-hitzarmen honetan hartutako konpromisoak bete beharko ditu, baita honako hauek ere:

- a) HJTPreko organo kudeatzailea den aldetik, erakunde onuradunei dagozkien betebeharrak bere gain hartzea, dirulaguntza publikoei buruzko legeriaren arabera.

Helmugako Jasangarritasun Turistikoaren Planeko ekintzak gauzatzea Larraulgo eremuan, Udalak onartutako proiektuen arabera.

- b) Lankidetzeta-hitzarmen honetan aurreikusita ez dagoen guztian, hitzarmenean eta Tolosaldea Garatzenek eta Eusko Jaurlaritzak Euskadiko Jasangarritasun Turistikoaren Lurralde Planari dagokion Helmugako Jasangarritasun Turistikoaren Plana gauzatzeko sinatutako dokumentu osagarrietan jasotako aurreikuspenak aplikatzea. Plan hori Europar Batasuneko Next Generation-EU funtsek finantzatutako Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren barruan dago.
- c) Tolosaldea Garatzen SAk Larraulgo Udalari bidaliko dizkio proiektua amaitzeari lotutako gastuen tarifak, eranskine(t)an zehaztutako jardueren justifikazio-memoria eta horien gastuak.

### **BOSGARRENA.- UDAL-ESPAZIOETAN ETA JABARI PUBLIKOKO ESPAZIOETAN JARDUKETAK GAUZATZEA**

1.- TOLOSALDEA GARATZENek debekatuta izango du dagokion Udalak onartutako egikaritze-proiektuan, memorian edo gehigarrian jasotakoez bestelako udal-espazioetan edo jabari publikoetan jarduketak egitea, alde zuzeneko idatzizko baimenik gabe.



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)


- 2.- Jarduketak egingo diren udal-higiezinak dokumentu osagarrietan daude deskribatuta.
- 3.- Tolosaldea Garatzenek Udalari entregatu beharko dizkio hitzarmen honen arabera egindako obrak, kontserbazio-egoera onean eta erabiltzeko moduan, hitzarmen honetan eta dagokion dokumentu osagarrian ezarritako baldintzetan.
- 4.- Udalak bere gain hartzen du sustatzailekidetza, jarduketa gauzatzeari eragiten dioten ordenantzen ondorioetarako. Era berean, Udalak Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 207.6 artikuluan aurreikusitako hirigintza-diziplinako jarduketak egingo ditu, proiektua onartu eta obra gauzatzeko helburuarekin.
- 5.- Bai obrak hasten direnean, bai amaitu ondoren, harrera-akta formala egingo da, bi alderdiek sinatuta.
- 6.- Udalak, beharrezkoa den kasuetan, udal-higiezinetakako pertsona edo erakunde okupatzaileei eskatu beharko dizkie Tolosaldea Garatzenek obrak egiteko behar dituen baimenak. Tolosaldea Garatzenek ez du erantzukizunik izango eraikin horiek okupatzeagatik eta horien ohiko erabileran izan ditzakeen eraginengatik.

### **SEIGARRENA.- INFORMATZEKO BETEBEHARRA. DATUEN BABESA**

- 1.- Alderdiak behartuta daude hitzarmen hau sinatu ondoren gerta daitekeen eta lortu nahi diren helburuekin zerikusia duen edozein gertakariri edo gorabeherari buruzko informazioa ematera.
- 2.- Alderdi sinatzaileek konpromisoa hartzen dute hitzarmen honen aplikazio-eremuan eskura ditzaketen edo laga daitezkeen datu pertsonalak tratatzeko garaian, honako hauetan ezarritakoa betetzeko: Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan, Europako Parlamentuaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan (datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen) eta hura garatzen duen araudian.

### **ZAZPIGARRENA.- JARRAIPEN-BATZORDEAK**

- 1.- Lankidetzak-hitzarmena behar bezala betetzen dela bermatzeko, alde sinatzaileek helburu horietarako aurreikusitako Jarraipen Batzorde batean parte hartuko dute.
- 2.- Proiektuen Jarraipen Batzordea honela osatuko da:
  - Tolosaldea Garatzenen aldetik, proiektuaren arduradun teknikoa eta Helmugako Jasangarritasun Turistikoaren Planaren laguntza teknikoan aritzen den teknikaria.



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

- Udalaren aldetik, proiektuaz arduratzen den ordezkari politikoa eta idazkaria-kontu hartzailea.

3.- Batzordea hiru hilean behin bilduko da gutxienez, hitzarmen hau sinatzen denetik hasita.

### **ZORTZIGARRENA.- BERRITZEA ETA ALDATZEA**

1.- Lankidetzeta-hitzarmen hau sinatzen duten alderdiek aitortutako eskubideak eta betebeharrak ezin izango zaizkie hirugarren erakundeei laga, errentan eman, usufuktuan eman, eskualdatu eta abar, hitzarmena sinatu duten beste alderdien baimenik gabe.

2.- Hitzarmen honen ezein aldaketa ez da baliozkoa izango, alderdi sinatzaile guztiek sinatzen ez badute behintzat.

### **BEDERATZIGARRENA.- EZ-BETETZEA**

1.- Alderdi sinatzaileetako batek bere gain hartutako betebeharren bat betetzen ez badu, bete duten alderdiek betebehar hori betetzeko eskatzeko edo, bestela, sinatutako lankidetzeta-hitzarmena suntsiarazteko ahalmena izango dute.

2.- Edonola ere, ez-betetze hori Jarraipen Batzordeak aztertu beharko du lehenik.

3.- Betebeharrak betetzen ez direnerako, alderdiek betebeharra izango dute araua bete duen alderdiari eragindako kalteak konpontzeko.

### **HAMARGARRENA.- ALDERDIEN ARTEKO KOMUNIKAZIOAK**

1.- Hitzarmenaren indarraldian alderdiek posta elektronikoz egin ahal izango dituzte haien arteko komunikazioak, eta honako helbide elektronikoa hauetara bidali beharko dira:


LARRAULGO UDALA: [idazkaria@larraul.eus](mailto: idazkaria@larraul.eus)

TOLOSALDEA GARATZEN: [ilarregi@tolosaldea.eus](mailto: ilarregi@tolosaldea.eus)

2.- Helbide elektronikoen horiek aldatuz gero, bi alderdi sinatzaileek posta elektronikoa bidez jakinarazi beharko diete gainerako alderdi sinatzaileei aldaketa.

### **HAMAIKAGARRENA.- DESADOSTASUNAK EBAZTEA**

Hitzarmen honen interpretazioak, aldaketak, ondorioek eta abarrek sor ditzaketen auziak Hitzarmenaren Jarraipen Batzordean ebatziko dira lehenik.



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Adostasunik ez badago, administrazioarekiko auzien jurisdikzioak izango du ebazteko eskumena.

### **HAMABIGARRENA.- IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA**

Hitzarmen hau administratiboa da, eta, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 6.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, aipatutako lege-xedapenaren aplikazio-eremutik kanpo geratzen da, eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean xedatutakoak arautzen du.

Eta ados daudela adierazteko, dokumentu hau sinatzen dute Tolosan, azken sinadura elektronikoaren egunean.

**LARRAULGO UDALA**

**TOLOSALDEA GARATZEN**

**Sin.: M<sup>a</sup> Teresa Arana Perez**

**Sin.: Anjel Martinez de Rituerto**

**TOLOSALDEA GARATZEN ETA LARRAULGO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA, TOLOSALDEKO HELMUGA TURISTIKOAN, LARRAULGO UDALERRIAN, JASANGARRITASUN TURISTIKOAREN PLANA GAUZATZEKO. 1. DOKUMENTU OSAGARRIA.**

---

### **Aurrekariak eta helburua**


Larraulgo Museo etnografikoaren proiektua 1998an abiatu zen, hainbat herritarrek donazioan emandako piezekin. Gerora, Dina-7 Kultur elkarteak sortu zen eta Larraulgo Museo Etnografikoa izatetik Larraulgo Ekomuseoa izatera pasa zen 2009. urtean. Hainbat urtez, tailerrak, bisita gidatuak eta museoa dinamizatzeaz arduratu baziren ere, azken urteetan, Larraulgo udaleko kultura teknikaria arduratzen da Ekomuseoa erakustez, alde aurretik hitzordua hartuta.

<https://larraulekomuseoa.net/>

Asteburu, jaiegun eta oporraldi garaian, museoa bisitatzeko aukerak oso mugatuak dira, herri txikiek ezin baitute norbait kontratatatu irekiera ordutegi jakin baterako. Larraul, 257 biztanleko (INE 2023) udalerria da.

Beraz, proiektu honen helburua, digitalizazioak eskaintzen dituen aukera berriei eutsiz, **Larraulgo Ekomuseoaren bisita, modu autonomoan** egin ahal izateko berrikuntza egitea da.

**Tolosaldeko Turismo Jasangarriko planaren baitan egingo den esku-hartzea**



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Tolosaldeko Turismo Jasangarriaren Planeko 4. Ardatzeko lehen ekintza, “Eskaintza turistikoa kulturala sortzea eta hobetzea” eskaeran nola aurkeztu zen:

**“- Larraulgo ekomuseoa hobetzea eta turismo-produktuak garatzea, lankidetzak publikoak eta pribatuak sustatuz.**

Larraulgo Museo Etnografikoa 1998an ireki zen, 2009an berrikuntza bat egin zen eta Larraulgo Ekomuseoa izena hartu zuen, udalerriko kultur elkarte batek dinamizatua. Gaur egun, alde aurretik hitzordua eskatuta bisita daiteke, eta jarduera honen helburua da museoaren bisita autokuiatua erraztea, IKTak sartuz eta museoaren irekiera gaur egun kokatuta dagoen taberna-jatetxearen esleipendunak.”

Planteamendu horren baitan, ondorengo aurrekontua eta ekintzak garatzea adosten da:

**- Larraulgo Ekomuseoa hobetzea: 95.000 € BEZ barne**

Segurtasun-sistema ezartzea, museoa bakarrik bisitatuko denez, bertako piezak babesteko. Museoko sarrera erosi eta atea irekitzeko sistema. Argiztapena automatikoki piztu eta itzaltzeko sistema, presentziaren arabera.

Sarrerak online erosteko webgunea, , museoan aurkezten diren objektuak nola erabiltzen ziren azaltzen duten bideoak ekoitzi eta hauek eskuragarri jartzeko pantailak instalatzea, panelen edukiak berritzea. 3 hizkuntza: euskara, gaztelania eta ingelesa.

### **Tokia eta kudeaketa**


Larraulgo Ekomuseoa toki berean mantenduko da, Larraulgo udaletxearen beheko solairuan, ostatuaren azpian.

Helbidea: San Esteban plaza, z/g.20159 Larraul (Gipuzkoa)

Ekomuseora sartzeko webgune bat sortuko da, bertan sarrerak erosi edo erreserbatzeko eta egungo atean, sarrera horrekin atea ireki eta modu autonomoan museoa bisitagarria izateko modua ezarriko da. Ekomuseoan bideo bigilantzia sistema bat ezarriko da eta beraz, sartzen diren pertsonen kontrola, erreserbaren erregistroa eta bideo bigilantziarekin osatuko da. Ohiko erabiltzaileentzat sarrera txartel iraunkorrak sortuko dira.

### **Nori zuzendua**

Euskal landa eremuaren eraldaketa ezagutu nahi duen edonorentzat izango da gune hau, bereziki Larrauldarren ondare kulturala, baina baita, euskal



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

nekazarien bizitza ezagutzeko ere. Taldeek aurrez erreserbatzeko aukera izango dute baina edozein bisitarik, momentuan eta era autonomoan bisitatzeko moduan jarriko da, dagokion erreserba sistema, ate irekiera eta segurtasuna antolatuz.

### **Esku-hartzearen deskribapena**

Larraulgo Ekomuseoa berritzeko eta bisita autonomoa egin ahal izateko, ondorengo esku-hartze hauek egingo dira:

#### 1. Museoko piezen segurtasuna

Bisita autonomoa izango denez, horrela behar izanez gero, bertan erakusten diren piezak segurtatu egingo dira.

Segurtasuna, bideo bigilantzia sistema eta sarreraren erregistroarekin osatuko da.

Museoaren behin behineko erakusketaren eremuaren berrantolaketa proposamena egingo da.

#### 2. Multimedia pantailak

Museoan dauden tresnak nola eta zertarako erabiltzen ziren azalduko duten bideoak grabatuko dira eta tresna bakoitzaren ondoan, azalpen gisa pantailak instalatuko dira bideo hauek erakutsiz.

Bezero bakoitzak bideoaren hizkuntza aukeratu ahal izango du: Euskara, gaztelera eta ingelesa gutxienez.

#### 3. Informazio-panelak berrituko dira.

Informazio panel hauek jarriko dira:

Euskarak lehentasunezko presentzia izango du eta ondoren, gaztelera eta ingelesez ere jarriko da informazioa gutxienez.

Irisgarritasun irizpideak beteko dituzte panel berriek.


Panelen diseinuan, Tolosaldeko Turismoaren marka gidaliburua jarraituko da.

### **IV. eranskina:** Tolosaldeko Marka gidaliburua

#### 4. Webgune berria sortzea, erreserba sistemarekin

Larraulgo Ekomuseoaren webgunea berritu eta eguneratzea. Responsive diseinua eta erreserba sistema, ate irekierari lotua.

Gutxienez hiru hizkuntzetan garatua: euskara, gaztelera eta ingelesa, euskarari lehentasuna emanez.



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Larraulgo Ekomuseoaren berri emateaz gain, Larraulgo turismo eskaintza osoa erakutsiko du eta Tolosaldea eskualdeko eskaintzara bideratu.

Larraulgo kultura teknikariak modu erraz batean informazioa eguneratzeko aukera izango du.

Webgunearen diseinuan, Tolosaldeko Turismoaren marka gidaliburua jarraituko da.

Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren Komunikazio eskuliburua kontutan izango da.

### 5. Argiteria sistema berria

Argiteria berrituko da bisitarien presentziari lotuta, piztu eta itzali dadin, erakusten diren piezen balioa nabarmendu eta panelen irakurketa erraztu dezan.

### 6. Sarrerako panela

Museoko sarrera, azalpen panel bat jarri beharko da, sartu nahi duenak, zer egin behar duen azalduz.

Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren Komunikazio eskuliburua kontutan izango da.

## **Gauzatze epea**

Gauzatze epea 3 hilabetekoa izango da, kontratua sinatzen den egunetik.

## **Martxan jartzea eta jarraipena**

Aurrekontuaren baitan, Larraulgo Ekomuseoaren berririkieraren antolaketa, komunikazioa eta egindako webgune, erreserba eta irekiera sistemaren jarraipen zerbitzua eskatuko da, 2025eko abenduaren 31era bitartekoa.”


Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

### ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- Tolosaldea Garatzen eta Larraulgo udalaren arteko lankidetzahitzarmena eta 1. dokumentua onestea, Larraulgo udalerrian Tolosaldeko Turismo jasangarriaren planeko jarduerak gauzatzeko. Plan hori, suspertze, transformazio eta erresilientzia planaren esparrukoa da, eta Europar batasuneko Next Generation funtsak dira finantzatzaileak.

BIGARRENA.- Maria Teresa Arana Perez, Larraulgo Alkate-Lehendakari andreak baimena ematea, aipaturiko hitzarmena sina dezan.





**LARRAULGO UDALA**

(GIPUZKOA)

HIRUGARRENA: Akordio honen berri Tolosaldea Garatzen-i ematea.

**BOSTGARRENGO PUNTUA**

**2024 URTEAN “TOLOSALDEA SAHARAREKIN ELKARTEAN, 365 EGUN”  
PROIEKTURAKO, TOLOSALDEA SAHARAREKIN ELKARTEAK EGINIKO  
DIRU-LAGUNTZA ESKAERAREN ONESPENA**

Ikusirik, aurten ere, Tolosaldea Sahararekin elkarteak kudeatuko duela Oporrak Bakean behin-behineko udako harrera programa. Horretarako urtarriletik aurrera teknikari bat kontratatuko du, programarako beharrezkoa den lanketa guztia koordinatuz eta itzultzaile bat ere.

Programa honen babesean Saharako hainbat neska-mutil etorriko dira Tolosaldeako familietara uda-aldia igarotzea, bere osasuna eta garapena hobetzeko helburu nagusiarekin. Tolosaldean uda igaroko duen haur bakoitzeko kostua 1.350,00 eurotako izango da.

Ikusirik, Larraulgo Udalak ere parte hartu nahi duela programa horretan.

Ikusirik, programa honen babesean Larraulgo familia batek Saharako haur bat hartuko duela bere etxean.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

**ERABAKITZEN DU:**

LEHENA: Larraulgo Udalak, Oporrak Bakean programan parte hartzeko onespena ematea.

BIGARRENA: Larraulgo Udalak, Oporrak Bakean programarako, 417.231.00.01 kontu sailean, 125,00 euro aurrikusten dituela, programak sortarazten dituen gastuekin laguntzeko. Aipaturiko gastua egiteko onespena ematea eta ordainketa burutu dadin agintzea.


HIRUGARRENA: Larraulgo familiara etorri den Saharako haurraren Larraulgo herrian gauzatzen diren udalekuetako gastua, Larraulgo udalak bere gain hartzea.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri interesdunei ematea.

**SEIGARREN PUNTUA**

**MOBIL HOME BAT LARRAULGO ZABALETA PARKEAN KOKATZEKO  
EROSKETARI BURUZKO BIGARREN ORDAINKETAREN ONESPENA**

Ikusita, Larraulgo udalak Zabaleta parkean kokatzeko “movil home” bat erosteko zegokion lizitazioa onestu zuela.



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusita, lizitazioa egin ondoren GRUPO EUROCASA enpresa izan zela esleipedun enpresa.

Ikusita, onartutako ordainketarako baldintzak ondorengoak zirela:

-%30 kontratua sinatzerakoan.

-%70 "movil home"-a Larraula ekartzerakoan. Otsailaren erdialdean ekartzea aurreikusten zen.

Ikusita, udalaren erruz, Movil Home-a uztailearen hasieran ekarri behar dutela, esleipendun enpresak ordaintzeko gelditzen den diru kopurua ordaintzeko eskaera egiten duelarik.

Ikusita, Larraulgo udala eskaera honekin ados agertzen dela.

Gaia azterturik, udalbatzak, aho batez, ondorengoa:

### ERABAKITZEN DU:

LEHENA.- GRUPO EUROCASA enpresari, Zabaleta parkean kokatu behar den "Movil Home"-aren ordaintzeko falta den % 70-a ordaintzea, hau da, 29.954,16 euro.

BIGARRENA.- 29.954,16 euroko gastua onestea eta bere ordainketa burutu dadin agintzea, udal aurrekontuetako 1 0000.623.327.00.02 kontu sailaren kargura.

### **ZAZPIGARREN PUNTUA**

#### **2024 URTEKO UDAL LANGILEEN OPOR EGUTEGIEN ONESPENA**

Idazkari-Kontuhartzaile andreak Larraulgo udal langileen 2024 ekitaldirako opor egutegiak aurkeztu ditu.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa


### ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: 2024 urterako Udal langileek aurkezturiko opor egutegiak onartzea.

### **ZORTZIGARREN PUNTUA**

#### **BESTE BATZUK**

Ez dira aurkezten.



**LARRAULGO UDALA**

(GIPUZKOA)

**BEDERATZIGARREN PUNTUA**  
**ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

Ez dira aurkezten.

Beste gairik ez dagoenez, arratsaldeko 16:19 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, behin-behineko Idazkaria naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.